

PREZIOAK NAFARROAN ETA BIZKAIA IGO ZIREN GEHIEN JOAN DEN URTEAN ZEHAR

Hegoaldeak gainditu egin zuen iaz Estatuko %2ko inflazio tasa

■ Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) iragan abenduan 0,3 puntu igo ostean, 1997ko inflazio tasa %2koa izan zen Espainiako Estatuan, azken 35 urteetako apalena, eta handixeagoa Hego Euskal Herrian.

Erredakzioa / Bilbo

IAZKO inflazio tasa Madrilgo Gobernuak aurreikusitakoa baino bi hamarreneko apalagoa izan da, eta 1962. urtean INE estatistika erakundea KPI kalkulatzeko hasi zenetik izandako apalena.

Agintari politikoek eta gizarte eragileek inflazioaren emaitza ona azpimarratu dute, enpleguaren eta ekonomiaren hazkunde-rako bidea erraztu egin dezakeelako. Horrez gain, Espainia Moneta Batasunean sartzeko irizpidea betetzea ekarriko du.


Azpiko inflazioa, elikagai freskuak eta energia kenduta prezioen bilakaera erreala erakusten duena, %2koa ere izan izan zen 1997an, abenduan hamarreneko bat igo ondoren.

EAEen %2,2ra heldu da inflazio tasa, baina herrialde herrialde ikusita, Bizkaian Nafarroakoaren parera heldu da, Araban (%2,1) eta Gipuzkoan (%1,9) prezioen igoerak apalagoak izan diren bitartean.

Frantziako Estatuan, berriz, KPIk ez zuen gorakadak izan azken abenduan, eta horri eskerrak inflazioak bertan %1,1 soilik egin zuen gora 1997an, aurreko urtean baino 0,6 puntu apalagoa.

Elikagaiak, oro har, batez bestekoaren ginetik garestitu eta inflazioaren-eragile nagusietakoak izan ziren iaz Hego Euskal Herrian, baita kultura eta besteak ere (turismoa eta ostalaritza).

Era berean, jantziek Nafarroan



eta etxebizitzak nahiz medizina EAEen batez bestekoa baino prezio igoera nabarmenagoa izan zuten.

Beste muturrean, garraioaren garestitzea apalagoa izan zen, neurri handi batean gasolina eta

gasolioa azken hilabeteetan merkaturatu egin zirelako.

Iazko prezioen emaitzarekin, inflazioak eutsi egin dio 1990. urtean hasitako beherako joerari. Urte hartan, inflazio tasa %6,5koa izan zen, aurreko urte-

an baino hiru hamarreneko txikiagoa. Zerikusirik ez, ordea, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan jasotako indizeekin. INEren arabera, inflazioaren errekor historikoa 1977an izan zen, prezioak %26,4 igo baitziren.

Maastricht inoiz baino gertuago

AURREKO hilabeteetako KPIren gainean egindako balorazioak berriro agertu dituzte orain Euskal Herriko eta Espainiako arduradun politiko, enpresari eta sindikatu gehienek. Izan ere, iazko azken hilabeteetan garbi ikus zitekeen 1997rako inflazio prebisiok, Maastrichteko Itunak agindutako irizpideetako bat, bete egingo zirela. Horixe da hain zuzen atzo gizarte eragileek gogorarazi zutena urte osoko KPI jakinda.

Espainiako Lan ministro Javier Arenasek esan zuen abenduko KPI «oso emaitza bikaina» izan dela. «Inflazioa kontrolpean egonda, jubilatutako eta gutxi irabazten dutenak lasai egon daitezke, ez dutelako eros-ahalmenik

galduko».

Enpresa nagusiek interes tasak jaisteak galdegin dute, inflazio emaitzak ikusita eta aurtengo hazkunde prebisiok kontuan hartuta. Kontsumo prezioen bilakaerari esker, Moneta Batasunean sartzeko irizpideetako bat betetzen dela gogorarazi du Confesbask EAEko patronalak. Hala ere, bereziki une honetan, aldagai hori kontrolpean edukitzeko ahaleginak ez gutxitzeko eta Espainiako Bankuari interes tasak jaisteko eskatu diote. Dirua merkatzek «inbertsioan, enpresa sarearen lehiakortasunean eta ekonomia susperraldian eragin onuragarria» izango lukeela uste dute Confesbaskeko kideek, eta horixe egin dezan eskatu

diote Espainian dirua jaulkitzen duen erakundeari.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia sailburu Francisco Egeak azterketa baimatzen duen arren, zuhur agertu da, datoen hilabeteetan inflazioak gora egiteko arrisku handia duela uste baitu. «KPIren bilakaera espero genuena izan da. Abenduan igoera apala egon da, eta urte hasieran egin genuen aurreikuspena bete egin da, urte amaieran inflazioa %2ra heldu delako». Hala ere, datoen hilabeteetan inflazioak gora egiteko arriskua handia dagoela uste du Egeak. «Zerbitzu alorreko kontsumo gaitz prezioen igoera ez da %3tik jaitzi urte osoan. Horrez gain, ez dirudi erraza izango

denik elikagaien eta eraldututako kontsumo gaitz prezio apalei eustea. Izan ere, aurreko urteko uztaz kaskarren ondorioak sumatzen hasiak dira dagoeneko merkatuetan. Gauzak horrela, datoen hilabeteetan prezio igoera nabarmena egon litekeela uste du Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. «Ez ninduke harrituko uztail aldera urte arteko inflazioa (aurreko hamabi hilabeteetako) %2,6-2,9ra helduko balitz». Ahalegin berezia egiteko eskatu du Ekonomia sailburuak.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia inflazioa Espainiako baino altuagoa izan da, eta Nafarroako are gehiago, Hegoaldeko probintzien artean gehien garestitu dena izan baita.

Nafarroako Merkataritza Ganbarak ohartarazi duenez, azken hoge urteetako inflaziorik apalena izan du iaz, eta 1996an jasotako datuekin alderatuta KPIk 1,3 egin du behera. «Hala ere, ez dugu Espainiako batenaz bestekora hurbiltzerik izan», gogorarazi du Merkataritza Ganbarak. Gainontzeko autonomi elkarrekin baino gehiago zergatik garestitzen den azaltzea zaila dela dio Nafarroako Merkataritza Ganbarak, «baina baliteke enpleguaren bilakaera onaren ondorio izatea, azken finean enplegu maila handiak eskaria areagotu egiten du eta». Uztaila eta abuztua izan ziren Nafarroan prezioak gehien igo ziren hileak, eta udako hilen ondorioei ezin izan die buelta eman. *

laburrean

■ Zumarragako langile bat hil da lan istripuan

ZUMARRAGAKO (Gipuzkoa) ANA 29 urteko langile gaztea hil zen atzo goizean, lan istripuan. Langile goizeko zazpiak laurden gutxiak aldera aurkitu zuten hilda, indusketak makina handi batek harapatuta. Legazpiko Urola kalean lantegi batean lanean ari zen langile gaztea. Lan istripua lantegiko zabortegi ondoran jazo zen, eta oraindik ez dute argitu ezbeharra nola gertatu zen. *

■ Penauilleko langileek Hendaiako trenbidea trabatu zuten atzo

HENDAIKO Penauille tren garbiketarako enpresako langileek protesta bideak gogortzea erabaki zuten atzo, 30. greba egunean. Zuzendaritzak 52 langileetarik zazpi kanporatu eta berteen soldak jaitzi nahi ditu. Hori gerta ez dadin, abenduaren bukarean zuzendaritzako bilkura blokatu zuten, bi buru egoitzan atxikirik. Zuzendaritzak salaketa ezarri zuen, eta gaur emanen dute epaia. Negozietak galdegiteko eta auzipeztzea salatzeak, atzo oren batez blokatu zuten Hendaiako trenbidea. Geltokiko ardura-dunek CRSak deitzean utzi zuten protesta ekintza. *

■ Bruselak onartu egin du Aristrain eta Aceraliaren bategitea

EUROPAKO BATZORDEAK argi berdea eman zion atzo Aristrain eta Aceralia siderurgia taldeen bategiteari. Espainiako Gobernuaren esku zegoen CSI taldea pribatizatu eta haren zati handiena Luxemburgoko Arbedek eskuratu zuenean eratu zen iragan urtean Aceralia siderurgia taldea. Pribatizazioan bertako kideak ere sartu ziren Aceralian, Aristrain besteak beste. «Aristrainen eta Aceraliaren arteko bategiteak ez du siderurgia alorrean lehia eragozten», esna du Bruselak. *

■ Bilboko burtsan egindako erosketek %69 egin dute gora

BILBOKO BURTSAN iaz 5,6 bilioi pezetaren erosketak egin ziren, aurreko urtean baino %69,1 gehiago. Orotara, balore merkaturatuen egindako salerosketak 11,4 bilioi pezetakoak izan ziren. Erosketetan, errenta finkoko akzioak izan ziren nagusi, 3,02 bilioiok izan baitziren. Errenta aldarrekoak, aldiz, 2,6 bilioiok. Emaitza horiek ikusita, Bilboko burtsa Espainiako Estatuko bigarrena izatera heldu da. Arduradunek esan dutenez, iazko emaitzak «bikainak» izan ziren. *